



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 6a

131. ZK.

### A U R K I B I D E A

E S A I L A :

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00098. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan bideragarria ote den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak prestatzea helduen giltzurruneko transplanteak egiteko. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00130. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita xenofobia instituzionala desagerraraz dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00145. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatzea bultzatzea dezan, eta egin beharreko lege- nahiz arau-aldaketak bultzatzea ditzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta administrazio-organoetan ere parte hartzen dutela. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-25/MOC-00152. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen baita emakumeen eskubideen eta askatasunen alde. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00149. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira etxebizitzaren arloan beherapen fiskala aplikatzeko plan bat taxutu dezaten. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00151. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan ez dela arreta-ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune (AJG) bakar batean ere, egun dauden gune guztien funtzionamenduari eutsiko zaiola eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00153. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru-komunitateko langile autonomoen balioa eta ekarpen ekonomiko eta soziala aintzatetsi ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- 11-25/MOC-00110. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan xede sozialeko kontratuen erreserba handitu dezan. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak onetsi du (6. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- 11-25/PES-00324. Galdera, klima-aldaketak eragindako kezka dela-eta hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00325. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuk alokairu jasagarriko etxebizitzak bultzatzeko sortu nahi duen sozietate publiko-pribatuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00326. Galdera, Barasoingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00098. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita azter dezan bideragarria ote den Osasunbidea-Nafarroako  
Osasun Zerbitzuko langileak prestatzea helduen giltzurruneko transplan-  
teak egiteko**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-  
luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako  
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin  
Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko  
urriaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez  
Nafarroako Gobernua premia-tzen baita azter dezan  
bideragarria ote den Osasunbidea-Nafarroako Osa-  
sun Zerbitzuko langileak prestatzea helduen gilt-  
zurruneko transplanteak egiteko. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua eta Osasun Departamentua premia-tzen ditu

azter dezan ea bideragarria ote den prestakuntza  
eta kualifikazio profesionaleko programa bat gara-  
tzea, Osasun-sistema Publikoko gainontzeko zerbi-  
tzuekiko akordioen bidez, Osasunbidea-Nafarroako  
Osasun Zerbitzuko langileei ahalbidetuko diena gilt-  
zurrun-transplanteak modu progresiboan egin ahal  
izatea pertsona helduen kasuan, bai eta prestazio  
berri horietarako osasun-instalazioak egokitzea  
ere".

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/MOC-00130. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua  
premia-tzen baita xenofobia instituzionala desagerraraz dezan**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-  
luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Par-  
lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafa-  
rroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko  
urriaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez  
Nafarroako Gobernua premia-tzen baita xenofobia  
instituzionala desagerraraz dezan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Aitortzen du xenofobia instituzionala dagoe-  
la, eta instituzioetatik egiten den edozein diskrimi-  
nazio mota errefusatzeko du.

2. Nafarroako administrazio publikoak premia-  
tzen ditu migratzaileek eta jatorri desberdinekoek  
oinarrizko eskubideak baliatzea zailtzen duten arau-

diak eta administrazio-prozedurak berrikus eta ego-  
kitu ditzan.

3. Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politi-  
ketako Departamentua premia-tzen du diskriminazio  
instituzionalaren aurkako salaketa- eta babes-  
mekanismoak berrikus eta indartu ditzan, biktime-  
tzako kanal irisgarri eta eraginkorrak ziurtatuz, arra-  
zakeria instituzionaleko praktikak identifikatu, zehatu  
eta amaiazteko.

4. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tratu-ber-  
dintasunari, arrazakeriari eta xenofobiari buruzko  
sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak bultzatuz  
ditzan administrazio publikoan Nafarroako Udal eta  
Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan.

5. Gizarte plural, inklusibo eta demokratiko batekin duen konpromisoa berresten du, zeinean aniztasuna Nafarroarentzat balio eta aberastasun gisa aitortuko baita.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/MOC-00145. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru  
Legea aldatzea bultza dezan, eta egin beharreko lege- nahiz arau-aldake-  
tak bultza ditzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo  
haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta adminis-  
trazio-organoetan ere parte hartzen dutela**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko urriaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea aldatzea bultza dezan, eta egin beharreko lege- nahiz arau-aldaketak bultza ditzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta administrazio-organoetan ere parte hartzen dutela. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 111. artikulua, sozietate publikoen gobernu- eta administrazio-organoei buruzkoa, aldatzea bultza dezan, langileek horietan egiaz parte hartzen dutela bermatzeko.

2. Egin beharreko lege- nahiz arau-aldaketak bultza ditzan bermatze aldera langileek administrazioari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko entitateetako gobernu- eta administrazio-organoetan parte hartzen dutela, bai eta fundazio publikoetan ere”.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/MOC-00152. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen baita emakumeen eskubideen eta askatasunen alde**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko urriaren 30ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen baita emakumeen eskubideen eta askatasunen alde. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentua argi eta garbi azaltzen da emakumeen eskubideen eta askatasunen alde.

2. Eskubide horiek defendatzen dituzten Nafarroako instituzio, entitate feminista eta gizarte-erakunde guztien lanarekiko konpromisoa erakusten du.

3. Berariaz baztertzen du emakumeen eskubi-deak mugatu, murriztu edo zalantzan jarri nahi dituen ekintza edo ekimen politiko oro".

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00149. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira etxebizitzaren arloan beherapen fiskala aplikatzeko plan bat taxutu dezaten**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira etxebizitzaren arloan beherapen fiskala aplikatzeko plan bat taxutu deza-

ten. Mozioa 2025eko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00151. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan ez dela arreta-ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune (AJG) bakar batean ere, egun dauden gune guztien funtzionamenduari eutsiko zaiola eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan ez dela arreta-ordutegia murriztuko arreta jarraituko eta larrialdiko arretako gune (AJG) bakar batean ere, egun dauden gune guztien funtzionamenduari eu-

tsiko zaiola eta Erriberriko gunearen ordutegia berreskuratuko dela. Mozioa 2025eko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00153. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-komunitateko langile autonomoen balioa eta ekarpen ekonomiko eta soziala aintzatets ditzan**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita foru-komunitateko langile autonomoen balioa eta ekarpen

ekonomiko eta soziala aintzatets ditzan. Mozioa 2025eko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/MOC-00110. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan xede sozialeko kontratuen erreserba handitu dezan**

### *ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak 2025eko urriaren 31n one-tsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gober-nua premia-tzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan xede sozialeko kontratuen erre-serba handitu dezan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premia-tzen du:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbi-tzuaren zentroetako arropak alokatu, garbitu, lisatu eta erreparatzeko zerbitzuaren kontratua lizitatzen denean Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan xedatutako-aren arabera ( arrazoi sozialengatik erreserbatutako kontratuak) eslei dadin 1. lotea: Nafarroako Ospita-

le Unibertsitarioa (NOU-A eta NOU-B) eta Tuterako Osasun Barrutia edo gisakoa kontratazio-bolumen-aren ondorioetarako, erreserba horretatik kanpo utzita 2. lotea: Nafarroako Ospitale Unibertsitarioa (NOU-C eta NOU-D), Lizarrako Osasun Barrutia, Iparraldeko eta Ekialdeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroak, Osasun Mentaleko zentroak eta Nafarroako Odol eta Ehun Bankua edo gisakoa kontratazio-bolumenaren ondorioetarako.

2. Legegintzaldi honetan arlo horretan lizitatuko diren kontratu guztiak % 6ra hurbiltzeko, halako moduan non areagotu egingen baita erreserburiko kontratazioaren bolumena, kopuru horretara hel-tzeko aukera errealei buruzko azterlan bat eginda. Azterlan hori 3 hilabeteko epean egin beharko da, eta Nafarroako Parlamentuan aurkeztu".

Iruñean, 2025eko urriaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/PES-00324. Galdera, klima-aldaketak eragindako kezka dela-eta hartutako neurriei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak klima-aldaketak eragindako kezka dela-eta hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00324 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Gobernua klima-aldaketari buruz hartzen ari den neurriei buruz (bereziki, emakumeen eta 45 urtetik gorakoen artean). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen (aurreantzean, KAETFL) 11. artikulua jasotzen duenez, Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoari (aurreantzean, KAB), besteak beste, honako hauek dagozkie:

a) Klima-aldaketari buruzko arau garapena, estrategiak, planak eta helburuak Nafarroan bultzatu eta koordinatzea, Estatuan eta Europar Batasunaren baitan hartutako konpromisoak oinarri harturik.

e) Gizarte osoa kontzientziatu eta informatzeko jarduerak sustatu eta egitea, bai eta zabalkundekoak ere, klima-aldaketari lotutako alderdi guztiez. Bere eskumenen esparruan, eta beste unitate batzuek egiten dituzten jarduketekin lerrokatuta, KABek honako neurri hauek bultzatu ditu:

**Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarra**

Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 15. artikulua (NAO, 66. zenbakikoa, 2022ko apirilaren 1eko) Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren ezarpena aurreikusten du.

Klima-aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarra administrazioak Nafarroan eztabaidan aritzeko eta parte hartzeko abian jarritako lehen esperientzia da, legegintza-agindu batetik sortua eta hainbat foru-aginduren bidez arautua.

Nafarroako gizartearen aniztasuna ordezkatzen duten 29 pertsonaz osatuta egon da batzarra, eta hainbat irizpide soziodemografikoren arabera hautatu zituzten pertsona horiek, besteak beste, sexua eta adina kontuan hartuta. Horrela, emakumeen eta 45 urtetik gorako pertsonen presentzia bermatuta zegoen.

Batzarra sei jardunalditan egin zen, jardunaldi bakoitzak bi saio izanik; lau bizi arlo eta hainbat gai espezifiko landu ziren saio horietan:

- Elikadura eta lurzoruen erabilerak
- Ekonomia eta lana
- Komunitateak, osasuna eta zaintzak
- Ekosistemak

Jardunaldi horietatik 106 proposamen zehatz sortu dira, eta Parlamentuari aurkeztuko zaion txosten batean jasoko dira horiek guztiak.

**Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua**

Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua sortu da, klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko partaidetza sozialerako organo gisa, Klima-aldake-

tari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean aurreikusitakoaren arabera.

Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseiluko ordezkari-tza saiatu egingen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 16.4 artikuluan ezarritako ordezkari-tza orekatuaren printzipioa betetzen. Horretarako, titularrak eta ordezkioak proposatzean, ahalegina egingen da eraketa orekatuaren printzipioa betetzeko, emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez.

#### Nafarroako Klima Astea

Klima-aldaketaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta (urriaren 24a), Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak, Iruñerriko Mankomunitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Unibertsitateak bat egin dute Nafarroako Klima Astea antolatzeke urriaren 20tik 26ra bitartean, klima-aldaketaren inguruko askotariko jarduera ugariarekin.

Deialdi bat egin da beste erakunde publiko eta pribatu batzuek ekimenarekin bat egin dezaten, eta 50 erakundek baino gehiagok adierazi dute parte hartu nahi dutela; orain arte, 30 jarduera baino gehiago prestatu dira.

#### LIFE-IP NAdapta-CC proiektuaren erakusketa

Herritarrei zuzendutako dibulgazio erakusketa ibiltaria, Foru Komunitatean klima-aldaketara egokitzeko egindako jarduketak erakusten dituena.

Erakusketak hizkuntza bakoitzerako (gaztelania, euskara eta ingelesa) hamar panel ditu. Hauek dira helburuak: egungo errealitate klimatikoaz eta emisio agertoki bakoitzetik eratorritako etorkizuneko aurreikuspenez kontzientziaztea; Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orriaren (HCCN-KLIa) medioz klima-aldaketaren arloan Nafarroak baliatutako estrategia ezagutaraztea; eta Europako proiektu integratu honek barne hartzen dituen sei jarduketa-arlo tekniko- inguruan egindako jarduketak erakustea. Hona hemen arestian aipatutako arloak: klima-aldaketaren monitorizazioa eta tokiko ekintza klimatikoa; ura; basoak; nekazaritza eta abeltzaintza; osasuna; eta azpiegiturak eta lurralde-plangintza.

2025ean, erakusketa hamasei kokalekutan egon da, eta horietako zortzitan, gainera, aipatutako proiektuari buruzko azalpen hitzaldi bat eman da.

Gaur egun, 21 lagapen berri daude zehaztuta, eta eskaera berriak jasotzen ari dira oraindik ere.

#### Toki-entitateetarako dirulaguntzen deialdiak, hiriguneetan uholdeak izateko arriskutik babesteko eta arrisku horretara egokitzeko jarduketak garatzeko, bai eta ingurumen integratioko jarduketak ere

Halaber, KABek kudeatu egiten ditu toki-entitateetarako dirulaguntzen deialdiak, hiriguneetan uholdeak izateko arriskutik babesteko eta arrisku horretara egokitzeko jarduketak garatzeko, bai eta ingurumen integratioko jarduketak ere

Zenbateko erabilgarria, guztira: 4.363.805,27 €.

Emandako zenbatekoa, guztira: 4.352.599,85 €.

Emandako guztizko zenbatekotik:

– Obren exekuzioan emandako zenbatekoa: 4.276.510,28 euro

Planetan, alerta sistemetan eta prestakuntzan emandako zenbatekoa: 76.089,57

– Obren exekuzioagatik dirulaguntza jaso duten udalen kopurua: 31.

– Planak ezartzeagatik, alerta sistemengatik eta prestakuntzagatik dirulaguntza jaso duten udalen kopurua: hamahiru.

Diruz lagundutako jarduketak guztira: 53 (34 obretan eta hemeretzi planetan).

Dirulaguntzak bi deialdi hauetan banatzen dira:

- 223E/2024 Ebazpena, maiatzaren 25ekoa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdi bat, hiriguneetan uholde-arriskuaren aurrean babesteko eta egokitzeko eta ingurumenean integratzeko jarduketak garatu ditzaten, Ebro Resilience Estrategiaren barruan eta Europar Batasunak-NextGenerationEUK finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

- 231E/2024 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdi bat, Nafarroa osoko hiriguneetan uholde-arriskuaren aurrean babesteko eta egokitzeko eta ingurumenean integratzeko jarduketak garatu ditzaten, Europar Batasunak-NextGenerationEUK finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Toki-entitateetarako laguntza horietaz gain, entitate pribatu eta pertsona fisikoentzako dirulaguntzak ere izapidetzen dira, uholde-arriskuaren aurrean egokitzeko, Ebro Resilience Estrategiaren barruan, Europar Batasunak-Next Generation EBk finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2025-2026 urteak.

Zenbateko erabilgarria, guztira: 1.050.000 €.

Emandako zenbatekoa, guztira: 804.591,23 € (2025-2026 deialdia ebazteke dago).

Hiru deialdiren bidez antolatzen dira dirulaguntza horiek:

- 607E/2023 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, deialdi hau onesten duena: “Dirulaguntzak Ebroko arroko eraikinak, ekipamenduak, instalazioak edo ustiategiak uholde-arriskura egokitzeko jarduketarako, Europar Batasunak-NextGenerationEUK finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan”.

- 404E/2024 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez deialdi hau onesten baita: “Entitate pribatu eta pertsona fisikoentzako dirulaguntzak, uholde-arriskuaren aurrean egokitzeko, Ebro Resilience Estrategiaren barruan, Europar Batasunak-NextGenerationEUK finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2024-2025 urteak”.

- 407E/2025 Ebazpena, maiatzaren 19koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez deialdi bat onesten baita, entitate pribatuei eta pertsona fisikoei dirulaguntzak emateko, uholde-arriskuaren aurrean egokitzeko, Ebro Resilience Estrategiaren barruan, Europar Batasunak-NextGeneration EBK finantzaturiko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. 2025-2026 urteak. Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren identifikazioa: 834695.

#### Emakumeak krisialdi klimatikoaren aurrean

Bestalde, eta bereziki emakumeen, berdintasunaren eta, bereziki, emakumeen ordezkaritzaren alde ezarritako neurriei buruzko galderaren espezifikotasunari erantzunez, garatutako askotariko neurrietan aplikatutako zeharkako gaia da.

Emakumeek eta gizonek ez diote ekarpen bera egiten klima-aldaketari, klima-aldaketak ez die hein berean eragiten emakumeei eta gizonei (eguneroko bizitzari dagokionez), eta emakumeek eta gizonek ez dute antzeko jarrera eta partaidetzarik klima-aldaketari buruz. Alde nabarmena nabaritzen da Nafarroako landan, hirietan eta industriaguneetan. Klima-aldaketa ez dela neutroa generoari dagokionez, eta, beraz, plan, estrategia, araudi eta ekintza oro –izan tokikoa, estatukoa edo nazioartekoa– ikuspegi horretatik jorratu behar da. Izan ere, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak “Genero-ikuspegi klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan” gaiari heltzen dio, esklusiboki, artikulua batean, eta

gai hauek jorrotzen dira bertan, besteak beste: emakumeek klima-aldaketarekin lotutako erabakietan parte hartzea, genero-ikuspegi ingurumen politiketan txertatzea, emakumeek landa ingurunean duten kalteberatasuna murriztea, eta emakumeak energiarekin lotutako gaietan ahalduntzea.

Neurri espezifikoek dagokienez, nabarmentzekoa da klimaren aldeko ekintzan emakumeen parte hartzea sustatzeko helburua izan duten tailerrak antolatu direla:

- 1. tailerra.- Emakumeak, klima-aldaketa eta osasuna. 30 urtetik gorako emakumeei zuzendua.

- Irunberriko zentro zibikoa. 2024ko azaroaren 14a.

- Museo Henri Lenaers, Iruren (Guesalatz). 2024ko azaroaren 29a.

- 2. tailerra.- Emakumeak, klima-aldaketa eta kontsumoa. 16 eta 30 urte arteko emakumeei zuzendua.

- Irunberriko zentro zibikoa. 2024ko azaroaren 9a.

- Deierriko Ostatua, Aritzalan (Deierri). 2024ko azaroaren 30a.

- 3. tailerra - Emakumeak, klima-aldaketa eta biodibertsitatea. Ikasleak-DBH.

- CPEIP San Juan de Lumbier / Irunberriko HLHIP. LH 5eko eta 6ko ikasleak. Gaztelaniaz. 2024ko azaroaren 8a.

- Zumadi eskola (Abartzuza). LH 5eko eta 6ko ikasleak. Euskaraz. 2024ko azaroaren 21a.

#### Life-IP NAdapta-CC proiektua

Halaber, LIFE-IP NAdapta-CC, LIFE programaren bidez finantzaturako lehen proiektu europarra (klima-aldaketara egokitzearen alorrean integratutako proiektuen kategorian), funts-funtsezkoa ari da izaten Nafarroan klima-aldaketara egokitzeko neurriak antolatu eta ezartzeko atazan.

Horri esker, 37 ekintza tekniko garatu dira sei alorretan:

- Monitorizazioa eta toki-ingurunea

- Ura

- Basoak

- Nekazaritza eta abeltzaintza

- Osasuna

- Azpiegiturak eta lurralde plangintza

Garrantzitsuenetako batzuk aipatzen dira:

– c1.1 ekintza: datorkigun klima ezagutzea eta nola eraginaren digun jakitea.

– c1.2 ekintza: tokian tokiko ekintza klimatikoa sustatzea.

– c2.1 ekintza: alerta goiztiarreko sistema bat ezartzea, HUAen funtzionamendua eta eguneroko kudeaketa hobetze aldera.

– c2.4 ekintza: alerta goiztiarreko sistema, Nafarroan uholdeak kudeatzeko.

– c2.5 ekintza: uholde arriskuari tokian-tokian egokitzea.

– c3.1 ekintza: klima-aldaketaren eraginak gehien pairatzen dituzten basoak identifikatzea.

– c3.2 ekintza: klima-aldaketara egokitutako espezieen hazien iturriak hautatzea.

– c4.1 ekintza: lurzoruak hobetzea, klima-aldaketari aurre egiteko.

– c4.2 ekintza: uraren kudeaketa hobetzea gure soro ureztatueta.

– c4.4 ekintza: gorabideko izurriteen eta gaixotasunen alerta sistema.

– c4.5 ekintza: animalien gaixotasunen gorabideko bektoreak monitorizatzea.

– c5.1 ekintza: klima-aldaketak giza osasunean dituen ondorioak aztertzeo zaintza eta informazio sistema berriak.

– c5.5 ekintza: giza gaixotasunen bektore inbaditzaileak detektatzeko zaintza sistema.

– c5.6 ekintza: klima-aldaketarekin lotuta, polenaren konposizioaren eta polinizazioaldietako aldaketaren zaintza gauzatzea.

– c6.1 ekintza: paisaia bereziak zedarritzea.

– c6.2 ekintza: ingurune eraikiaren egokitzapena klima-aldaketara.

– c6.3 ekintza: eraikitako ondare publikoa klima-aldaketara egokitzea.

– c6.4 ekintza: bizitegi parke publikoa klima-aldaketara egokitzeo pilotua

– c6.11 ekintza: klima-aldaketaren agertokiak berrikustea eraikitako inguruneetan.

Halaber, 23 ekintza ez-tekniko garatu dira prestakuntzaren, komunikazioaren, emaitzen transferentziaren eta erantzunaren arloetan.

### Nafarroako Energia eta Klimaren Bide Orri Integratua (2050) - ENERKLINA

Europako eta Estatuoko konpromiso klimatikoeko koherentziari eutsiz, Nafarroako Foru Komunitateak politika integratuen eta asmo handiko plangintza energetiko baten bidez antolatzen du bere ekintza klimatikoa. Foru Komunitateak hainbat tresna estrategiko eta araudi ditu klima-aldaketak eskualdean dituen eraginei –gero eta handiagoak direnei– aurre egiteko.

Hala, 2030erako Nafarroako Energia Planak (NEP) helburuak eta jomugak ezartzen ditu energia berriztagarriak, energia-efizientzia eta autonomia energetiko handiagoa sustatzeko. Bestalde, Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orriak (HCCN, KLINA ere deitua) 2030-2050erako helburuak eta arintzeko eta egokitzeko neurriak finkatzen ditu lurraldean. Gainera, Nafarroak 2022ko martxoan onartu zuen Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko Foru Legea, Nafarroan haren eraginak leuntzeko, horretara egokitzeko eta bidezko trantsizioa egiteko helburuak betetzeko lege esparru gisa.

Helburuak, neurriak eta bitartekoak esparru komun batean batu behar dira, nola esparru europarreko hala nazio esparruko (Espainia, dagokigun kasuan) gomendioen –klima-aldaketaren aurka borrokatzeo eta energia-trantsizioa gauzatzeko estrategia bateratuak izateari dagokionez– arabera koak izan daitezzen, eta existitzen diren tresnak eguneratzea (informazio eta ezagutza berrienetan oinarrituta) ere funtsezkoa da; horregatik, Nafarroako Gobernua Nafarroako Energia eta Klimaren Bide Orri Integratu (2050) –ENERKLINA 2050– berri bat sortzeko lanean ari da.

### Klima-aldaketaren arloko proiektu estrategiko berri bat aurkeztu da Europako Batzordearen LIFE Programaren deialdira

Klima-aldaketa premiazko erronka da Nafarroarentzat, alderdi anitzekoa, sistema naturalei, sektore ekonomikoari eta biztanleriaren ongizateari eragiten diena. Nafarroako Klima Aldaketaren Bide Orriak (CCRN-KLINA), 2030erako Nafarroako Energia Planak eta Klima Aldaketara Egokitzeo Plan Nazionalak oinarri garrantzitsuak ezarri badiutze ere, horien ezarpena sektoreen eta lurraldeen artean zatikatuta dago oraindik ere.

LIFE NADAPTA, PLAN4CET eta halako proiektuetan aurrerapen esanguratsuak erdietsi diren arren, oraindik ere oztopoak daude, hala nola inertzia instituzionala, sektorekako banaketa, datuen zatikatzea, finantzaketa osagarriko sarbide eskasa eta talde kalteberen eta udalerreri txikiaren parte hartze eskasa. Faktore horiek traba egiten diote klima-

aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko soluzio integratuak eraginkortasunez ezartzeari.

Nafarroak jauzi sistemiko eta operatibo bat behar du orain: plangintzatik lurraldean erabat ezartzera. Eskualdeak jada existitzen diren estrategiak sendotu behar ditu, ekintzara bideratutako programa koherente batean, emisioen murrizketa neurgarriak ahalbidetzeko, erresilientzia hobetzeko, bidezko trantsizioa bizkortzeko eta alderdi interesdunen gaitasunak lurralde osoan zabaltzeko.

Horretarako, ekintza klimatikoaren arloko proiektu estrategikoak finantzatzeko Europako Batzordearen LIFE Programarako egindako deialdian, Nafarroako Klima Aldaketaren Bulegoak ENERKLINA 2050 izeneko proiektu estrategiko baten aurkezpena koordinatu du. Onartuz gero, proiektu horrek Europako funts gehigarriak izatea eta ENERKLINA Bide Orria ezartzeko motor gisa balio izatea ahalbidetuko luke, Nafarroa menderearen erdialderako eskualde erresiliente eta klimatikoki neutro bihurtzeko behar diren gobernantza-, frogatze-, finantzaketa- eta partaidetza-mekanismoak mobilizatuz.

Bestalde, klimaren aurkako ekintzak ez dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari bakarrik eragiten; izan ere, beste departamentu batzuek neurri jakin batzuk garatu dituzte, herritarrek klima-aldaketarekin lotuta duten kezkarri erantzute aldera; KAETFLren arabera dira neurri horiek. Hona hemen horietako zenbaitzuk:

#### “Hola, bus / Kaixo, busa!” kanpaina

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, “Hola, bus / Kaixo, busa!” kanpaina aurkeztu du astearte honetan Iruñean. Ekimen horren bidez, nafarrak sentsibilizatu nahi dira autobus publikoa eta eskatu ahalako autobusa erabiltzeak dakartzan abantailen inguruan.

#### Klima-aldaketa: gainditu dezakegun erronka!

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak antolatutako jardunaldia, helburu batekin: Nafarroako ikasleak politika jasangarrien parte aktibo izan daitezzen lortzea ikastetxeetan, etxeetan, aisialdian edo kontsumitzeko moduan.

400 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte “Klima-aldaketa: gainditu dezakegun erronka!” jardunaldian. Ekimen hori beste urrats bat da Nafarroako Gobernuak mugikortasun jasangarriaren aldeko apustua egin beharraz sentsibilizatzeko duen konpromisoan.

#### “Buru hotza beroari aurre egiteko” kanpaina

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak abiarazitako kontzientziazio kanpaina, tenperatura altuekin lotutako arriskuak prebenitzeko, bero boladekin lotutako perilei buruzko informazioa emanez eta banakako osasuna eta zaintza komunitarioa babesteko baliabideak eskainita. Kanpainak lortu nahi du herritarrek tenperatura altuak gutxiets ez ditzaten eta prebentzioan zentra daitezten, hidratazioaren bidez, arropa egokia erabiliz eta itzala edo aire girotua duten tokiak bilatuz, besteak beste.

Azkenik, nabarmentzekoa da toki-entitateak kezka horri erantzuteko hartzen ari diren neurriak ikusarazteko neurriak ere bultzatzen dituela KABek. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Alkateen Itunaren jardunaldia. Aurten, 2025ean, laugarren edizioa egiten da, eta honako jarduera hauek ikusaraziko dira:

- Motxila energetikoa San Miguel ikastetxe publikoan (Noain)

- Nafarroako Hazien eta Liburutegi Publikoen Sarea (Arangurengo Udala)

- 2026ko egutegia ekintza klimatiko lokalerako (NELS sarea)

- Zangozerrian ontzi birziklagarriak bildu eta itzultzeko proiektu pilotua

- Ardi latxaren artilea erabiltzea nekazaritzan klima-aldaketara egokitzeko (NUP)

- Inausketa hondarrak pilatu eta birrintzeko puntua (Etxarri)

- Drainatze jasangarriko hiri sistemak (DJHS) (Antsoain)

- Sareak hornitzeko eta sektorizatze sareak berritzea (Azkoien)

- DJHS NUP (Tutera)

- Auto elektrikoaren erabilera partekatua (Uharte)

- KEJAEPen ezarpena energia komunitateen bidez (Iruña)

Aurreko ataletan azaldutako guztiak erakusten ditu herritarrek klima-aldaketarekin lotuta duten kezka geroz eta handiagoari erantzuteko Nafarroako Gobernuak hartzen ari den neurrietako batzuk.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrera

## **11-25/PES-00325. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike- tako Departamentuk alokairu jasangarriko etxebizitzak bultzatzeko sortu nahi duen sozietate publiko-pribatuari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuk alokairu jasangarriko etxebizitzak bultzatzeko sortu nahi duen sozietate publiko-pribatuari buruzkoa, 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00325 idatzizko galdera egin zion Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari. Bada, honako hau adierazten du:

Nafarroako Gobernuak eta Nasuvinsa sozietate publikoak laster hasiko dute –2025a amaitu baino lehen–, administrazio-prozesua, kapital mis-

toko sozietatearen sorkuntza eta eraketarekin amaituko dena, lankidetzara publiko-pribatu bidez etxebizitza babestuak –errentamendu eskuragarriko erregimenekoak– sustatzeko.

Gaur egunean, amaituta dago bazkide pribatua hautatzeko baldintza-agiri arautzaileak idatzeko aurretiazko fasea. Izan ere, jada gauza jakina den bezala, sozietate hori Nasuvinsarekin batera kapitalizatuko du, % 50ean.

Behin Nafarroako Gobernuaren baimena esku-ratuta, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean eta Kontratazioaren Atarian argitaratuko da kapital mistoko sozietate horretako bazkide pribatua hautatzeko lizitazio publikoa, publizitatearen, berdintasunaren eta lehia askearen printzipioak betetzen direla bermatuta betiere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-25/PES-00326. Galdera, Barasoingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Barasoingo Martín Azpilcueta HLHIP ikastetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00326 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Martín Azpilcueta ikastetxea (Barasoain), gaur egun, Barasoingo eta Garinoaingo biztanleei zerbitzua ematen dien eskola lokala da. Ikastetxe horrek ez du, Hezkuntza Departamentuak antolatutako zerbitzu osagarrien artean, ez garraio zerbitzurik ez eskola jantokirik, ez baitira betetzen bi hauetan ezarritako baldintzak: maiatzaren 29ko 58/2024 Foru Dekretua –zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak– eta Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Agindua –Nafarroako Foru Komunitateko eskola-garraioaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duenean–.

Eremu edo espazioei gagozkiela, ikastetxeak baditu otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuan –Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen gutxienerako baldintzak ezartzekoan– ezarritako gutxienerako eremuak, sei taldeko egungo matrikularako (A/G ereduko hiru eta D ereduko hiru).

Ikastetxea eskualde ikastetxe bihurtzeko aukera aztertu ondoren, EH Bildu Nafarroak aurkeztu zuen 11-25-PES-00272 idatzizko galderari erantzun zitzaien bezala, eta Orbaibarko udalerririk (Leotz, Orisoain, Oloritz, Puiu eta Untzue) atxikita, guztira bederatzi edo hamar talde izanen lirateke bertan, hamaika izatera iristea baztertu gabe (aurreikuspenen arabera). Horrenbestez, gutxienera gutxienez, ohiko ikasgela bat eta laguntzako eremu bat faltako lirateke bertan; are, ohiko hiru ikasgela eta lagun-

tzako ikasgela bat faltatzeko aukera ere egonen litzateke. Eraiki beharreko azalera osoa uneko matrikulazio aurreikuspenak aintzat hartuta eta egungo zenbait gune aldatzeko aukera aztertuta kalkulatu beharko litzateke. Izan ere, ikastetxearen alboko esparruan gauzatu beharreko handitzeak ezinbestean eskatzen du beste gune batzuk ere aldatzea, ikastetxearen patioa ez kaltetzeko. Horiek horrela, beharren programa zehazten den unera arte, ez dago jakiterik handitzeak zer kostu ekonomiko izanen lukeen, ezta aplikatu beharreko irtenbide arkitoniko zehatza zein izan beharko litzatekeen ere.

Gainera, eraikinak ez du ez IkasNova ikasgelarik ez hezkuntza bereziko azpiegitura espezifikorik ere, ikastetxea handituz gero beharren programara gehitu beharko liratekeenak.

Ikastetxeetako erabilera anitzeko espazioen azalera, zentro bakoitzeko matrikulazioaren arabera da. Bada, ikastetxe honen kasuan ere, Departamentuak matrikulazioaren arabera azalera aurreikusten du.

Bestalde, deskribatu berri ditugun matrikulazio aurreikuspenak aintzat hartuta, egungo eremuek ez dute azalera nahikoa ikastetxea eskualdeko ikastetxe bilakatzeko egungo eremuak berrantolatuta.

Jantokiari dagokionez, sukaldean edo kolektibitateen jantokien neurriari buruzko indarreko araudia udal-ordenantzek ezartzen dute, eta, beraz, ez dago araudi bakar bat. Araudiak ezartzen duenez, langileek baldintza ergonomiko onargarrietan egin behar dute lan, euren segurtasunerako eta osasunerako arriskurik gabe. Horretarako, langile bakoitzarentzat gutxienerako espazio bat ezartzen du araudiak lanean, segurtasunerako eta higieneko arauak oinarri hartuta; espazio hori, espazio erabilgarriko bi metro koadrokoa eta espazio libreko hamar metro kubikokoa da 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, eta sukaldean lan giro segurua, eraginkorra eta osasungarria sortzeko ezarritako dago, langile bakoitzarentzat gutxienerako espazio horizontala zein bertikala aintzat hartuta. Hau da, sukalde txikietan, igarotzeko edo laneko guneetako gutxienerako zabalera 80 zentimetrokoa izan behar du, eta, gomen datzen da, nahikoa leku badago, gutxienez 1,20 metroko tartea izatea bi pertsonak elkarrekin lan egin ahal izateko. Gutxienerako altuera 2,5 metrokoa da jantokian eta sukaldean, eta 2,30 metrokoa komunetan eta aldageletan.

Kolektibitate baten sukaldean eta jantokian guneen azalera kalkulatzeko, gune funtzional bakoitzean beharrezkoak diren metro koadroak hartu behar dira aintzat, jankide kopurua, zerbitzu mota eta establezimenduaren edukiera kontuan izanda. Gainera, formulak eta kontsiderazio espezifikoak aplikatu behar dira zenbait gunetan, adibidez elikagaiak jasotzeko, biltzeko, prestatzeko, egosteko, garbitzeko eta zerbitzatzeko guneetan. Eta gauza bera gertatzen da sukalondoan, komunetan eta aldageletan ere. Horrenbestez, lokalaren neurriek ahalbidetu egin behar diete langileei lan egitea segurtasuna eta osasuna arriskuan jarri gabe eta baldintza ergonomiko onargarrietan. Sukaldearen banaketak honako gune hauek hartu behar ditu aintzat:

Sukalondoa kolektibitateen sukalde batean: ez dago era esplizituan ezarrita inolako gutxieneko tamainarik araudi orokor batean. Aitzitik, zenbait irizpide orokor eta gomendio aplikatzen ahal dira elikagaien higie eta segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren alorreko araudian oinarrituta, bai eta laneko eremuen neurri praktikoetan funtsatuta ere. Aintzat hartu beharreko kontsiderazio orokorrak honako hauek dira:

- Langunea: elikagaiak prestatzeko gunea ez izan arren, sukalondoak ere era erosoan eta seguruan lan egitea ahalbidetu behar die langileei. Horrek esan nahi du nahikoa espazio izan behar dutela mugitzeko, beharrezko tresna eta ekipoa hartzeko, eta zereginak estropezu egiteko edo kolpatzeko arriskurik gabe egiteko.

- Ergonomia: alderdi ergonomikoak hartu behar dira aintzat, hala nola laneko mahaien altuera, hanketarako leku librea egotea eta argiztapena egokia izatea.

- Segurtasuna: guneak behar bezala argiztatuta eta aireztatuta egon, garbitzen eta desinfektatzen errazak diren gainazalak izan, eta elikagaien higie eta segurtasunerako baldintzak bete behar ditu.

- Gomendatutako neurriak:

- Gutxieneko azalera: ezarritako gutxieneko azalera ez badago ere, sukalondoak pertsona bakoitzeko gutxienez 2 metro koadro izatea gomendatzen da langune egoki bat bermatzeko. Languneen zabalera: langunearen zabalera, mahaiak eta igarotzeko eremuak aintzat hartuta, 80 zentimetrotik beherakoa izatea gomendatzen da.

- Elementuen arteko distantzia: garrantzitsua da mahaien, ahulkien eta sukalondoko elementuen artean mugitzeko nahikoa leku izatea, gutxienez metro batekoa.

- Altuera: laneko mahaien altuerak egin beharreko zereginentzat egokia izan behar du, eta sukaldeko sabaiaren gutxieneko altuera 2,50 metrokoa izan ohi da. Hori bai, zenbait udalek lurretik sabaira 2,80 metro izateko betebeharra ezartzen dute.

Laburbilduz, gutxieneko tamaina espezifikorik ezarrita ez dagoen arren, gomendatzen da kolektibitateen sukalde bateko sukalondoan era erosoan, seguruan eta ergonomikoan lan egiteko moduko espazio bat ziurtatzea, aintzat hartuta pertsonako, laneko guneen zabalera eta elementuen arteko distantziako gutxieneko azalaren gomendioak, bai eta elikagaien higieneko eta segurtasuneko eta lan arriskuen prebentzioko araudia ere.

Hona hemen kontuan hartu beharreko araudia:

1. Elikagaien higie eta segurtasuna:

- 852/2004 (EB) Erregelamenduak, elikagaien higienari buruzkoak, instalazioei, ekipoei eta elikagaien manipulazioari buruzko baldintza orokorrak ezartzen ditu, sukalondoari ere aplikatzen zaizkionak.

- 2001eko urtarrilaren 12ko 3484/2000 Errege Dekretua, prestatutako janariak egiteko, banatzeko eta merkaturatzeko higie arauak ezartzen dituena.

- 1021/2022 Errege Dekretua, elikagaien ekoizpeneko eta merkaturatzeko higie baldintzei buruzkoa.

2. Laneko arriskuen prebentzioa:

- Laneko arriskuen prebentzioko araudiak ezartzen duenez (31/1995 Legea), derrigorrezkoa da lan-baldintza seguru eta osasungarriak bermatzea, langunea ere barne hartuta.

3. Laneko segurtasuna eta osasuna:

- 486/1997 Errege Dekretuak ezartzen ditu segurtasuneko, osasuneko eta irisgarritasuneko gutxieneko xedapenak lantokietan, sukaldeak ere barne hartuta.

4. Altzariak:

- UNE-EN 1116:201 araua.

5. Legedi autonomikoa:

- 311/1997 Foru Dekretua, urriaren 27koa, Nafarroako Foru Komunitatean elikadura arloko jarduera, industria edo establezimenduen funtzionamendura-ko osasun baimena erregulatzen duena.

- Barasoingo elikagaien higieneko udal-ordenantza, janaria zerbitzatzeko espezializatutako askotariko establezimenduek bete behar dutena jantokietan, terrazetan eta beste. Azalera zehatzak

espezifikatzen ez baditu ere, udal-ordenantzen helburua establezimenduek bete beharreko higie-neko eta osasungarritasuneko baldintzak ezartzea da.

- Barasoingo Udalaren hirigintzako araua janaria zerbitzatzen duten establezimendu publikoentzat (jartetxeak, kolektibitateak, tabernak eta abar).

6. Bestelako araudiak: suteak itzaltzekoa, erauzte eta aireztapeneko, gasaren gainekoa, elektrizitate eta argiztapeneko, iturgintza eta saneamenduko, eta hozteko instalazioena.

Azalera totalari dagokionez, egungo espazioa ez da nahikoa eskualdeko zerbitzua emateko, 37 metro koadro bakarrik baititu eta ez baita aski ikasle guztiak hartzeko. Espazioaren kalkulua 100 jankideko jantoki baterako egin da (hori litzateke ikasle kopurua ikastetxea eskualdekoa bilakatuko balitz, AG ereduko 43 ikasle eta D ereduko 46 hartu beharko bailituzke, hau da, 89 ikasle guztira).

Jantoki kolektibo bat antolatzeak eskatzen du aintzat hartzea bai eskuragarri dagoen espazioa bai jankideen erosotasuna. Mahaian eseritako jankide batek metro koadro bat hartzen du gutxi gorabehera. Horrez gain, beste 20 zentimetro koadro ere gehitu behar dira igarotzeko lekua, altzari osagarriak eta zona komunak bezalako aldagaiengandik; horrenbestez, jankide bakoitzak betetzen duen batez besteko espazioa 1,20 metro koadrokoa litzateke.

Datu horiek eskuan, jantokiaren edukiera kalkulatu dezakegu, aintzat hartuta ezarrita dagoela lokalaren % 60 jantokira bideratu behar dela eta gainontzeko % 40a sukaldara (jarriko balitz); aipatu banaketa funtsezkoa da eragozpenik gabeko funtzionamendu arina bermatzeko.

Honako hau da aplikatzen den formula: Edukiera fisikoa = zerbitzua emateko erabilgarri dagoen metro koadro kopurua / 1,20 metro koadro jankide bakoitzarentzat. Aintzat hartuta jantokia 100 jankide-tzat dela eta bakoitzak 1,20 metro koadro hartzen dituela, jantokiak 120 metro koadro izan beharko lituzke (lokalaren % 60). Mahaiaren inguruan gutxienez 90 eta 120 zentimetro arteko espazioa izatea gomendatzen da, pertsonak arazorik gabe esertzeko eta zutitzeko. Pertsona bakoitzak behar duen espazioak 60 zentimetro luze eta 40 zentimetro zabal izan behar du gutxi gorabehera, jankideen arteko banaketarako zentimetro gehigarri batzuk gehituta.

- Jantoki zerbitzua (beste leku batean prestatutako eta ikastetxera garraiatutako janari beroa): jantokiaren alboko guneetan kokatu beharko lirateke sukaldondoa (pertsona bakoitzeko 2 m<sup>2</sup> izan behar

ditu gutxienez, baina gomendatzen da gutxien-gutxienez 5 m<sup>2</sup> izatea) eta jantokiko eta sukaldondoko langileentzako komunak eta aldagelak (3 m<sup>2</sup> komun eta 2 m<sup>2</sup> aldagela langile bakoitzeko). Horrenbestez, jantokiaren 120 m<sup>2</sup>-ko eremuari sukaldondoa, komunak eta aldagelak jartzeko azalera gehitu beharko litzaike.

- Jantoki zerbitzua (sukaldea ikastetxean bertan): janaria prestatu eta kozinatzeako sukaldearen alboko guneetan kokatu beharko lirateke jakiak jasotzeko, biltegitartzeko eta garbitzeko guneak, jantokia, eta sukaldeko, jantokiko eta sukaldondoko langileentzako garbigelak eta aldagelak (3 m<sup>2</sup> komun eta 2 m<sup>2</sup> aldagela langile bakoitzeko). Horrenbestez, sukaldearen 80 metro koadroko espazioari (lokalaren % 40), jantokia, komunak eta aldagelak jartzeko azalera gehitu beharko litzaike.

Jantoki-zerbitzu motari dagokionez, nabarmendu behar da helburua Hezkuntza Departamentuak kudeatutako eskualdeko eskola jantoki guztiek sukaldea ikastetxean bertan izatea dela. Hau da, elikagaiak kontsumitzen diren lekuan bertan prestatzea eta kozinatzea, uste baitugu eredu horrek honako abantaila hauek dituela janaria beste leku batean prestatu eta ikastetxera bero garraiatzearen alloan:

- Freskotasuna eta kalitatea: elikagaiak unean bertan kozinatzean, sasoiko jaki freskoak erabiltzen ahal dira, eta, ondorioz, kalitate eta zapore hobeagoko platerak lortu.

- Ekoizpenaren kontrola: prestatutako janari kopurua eskarira hobeki egokitzea posible da, elikagaiak alferrik galtzea saihestuz eta baliabideen kudeaketa optimizatuz. Gainera, jankide guztiek janaria bero eta garaiz jasotzea bermatzen da.

- Malgutasun handiagoa eta menuaren pertsonalizazioa: menua behar espezifikotara egokitzeko errazten du, adibidez dietan ezarritako murriztapenak edo lehentasun kulturalak aintzat hartuta. Gainera, aukera gehiago eskaintzen ahal dira.

- Esperientzia sentsoriala: elikagaien usaina, testura, zaporeak eta tenperatura hobeki mantentzen dira prestatzen diren unetik kontsumitzen diren arte. Gainera, jankideen lehentasunetara egokitzen ahal dira.

- Elikadura-segurtasuna: sukaldea ikastetxean bertan izanik elikagaien higienaren eta segurtasunaren gaineko kontrola areagotzen eta kutsadura arriskua murrizten da.

- Esperientzia gastronomiko hobea: prestatu berri diren elikagaiez gozatzeko aukerak, zapore eta testura egokiko jakiak eskuratuz, jankideen esperientzia gastronomikoa hobetzen du.

- Kostuak murriztea: ikastetxean langile gehiago behar izatea posible den arren, luzera ekonomikoa izan liteke prozesuaren optimizazioagatik eta hondakin kopurua murrizteagatik.

Ildo beretik, janaria beste leku batean prestatu eta ikastetxera bero garraiatzeak honako desabantaila hauek ditu:

- Kalitatea galtzea: elikagaiek, oso tenperatura altuetan kozinatu eta garraiatuz gero, baliteke zaporea, testura eta nutrientek galtzea.

- Kontrol txikiagoa: jakiak prestatzen eta kontsumitzen diren lekuen arteko distantziak zaildu egiten du gorabehereri aurre egitea edo eskari bereziei erantzutea.

- Kutsadura arrisku handiagoa: neurri egokiak hartzen ez badira, jakiak tenperatura handietan manipulatu eta garraiatzeak kutsadura arriskua areagotzeko arriskua dakar berekin.

- Menua pertsonalizatzeko zailtasun handiagoa: menua jankideen behar indibidualetara egokitzea baliteke zailagoa izatea janaria beste leku batean prestatu eta ikastetxera bero garraiatzen denean.

Hezkuntza Departamentua lanean ari da eskualdeko ikastetxeetako jantokiak osasungarriak izan daitezen, eta, horretarako, funtsezkotzat jotzen da zenbait arlo lantzea, tartean elikagaien kalitatea, langileen prestakuntza, giro atsegina sortzea eta elikadura-hezkuntza. Arlo horiek guztiak landuta, ikastetxeko jantokia leku osasungarri eta jasangarri bilakatu

daiteke, jankideen ongizate fisikoa, emozionala eta soziala hobetzen lagunduko duena. Horregatik, helburua eskualdeko ikastetxe guztietako jantokiak sukaldea ikastetxean bertan izatea da, kalitate nutrizionala bultzatzeko eta zerbitzatutako menu guztien gaineko kontrola hobetzeko.

Honako hau da aplikatu beharreko araudia:

- 58/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak.

- 17/2011 Legea, uztailaren 5ekoa, Elikadura Segurtasunari eta Nutrizioari buruzkoa.

- 315/2025 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, zeinaren bidez uztailaren 5eko 17/2011 Legea –Elikadura Segurtasunari eta Nutrizioari buruzkoa– garatzeko arauak ezartzen baitira, ikastetxeetan elikadura osasungarria eta jasangarria sustatzeko.

Azaldutako guztiagatik, ikastetxearen egungo azalera ez da nahikoa Martín de Azpilicueta HLHIP (Barasoain) Orbaibargo udalerrri guztietako biztanleei zerbitzua eman eta eskualde-ikastetxe bihurtzeko, gehieneko edukiera haren konfigurazioaren arabera izanik, lokaltzat edo eskualdekotzat hartzen ote den kontuan hartuta, jada azaldu dugun bezala.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui